

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ura hornitu eta ur zikinak garbitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasen erroldak jendaurrean jartzea —2018ko laugarren hiruhilekoa—

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita, Uren Udal Zerbitzuan —Antilletako pasabidea, 3A— eta San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behea— ura hornitu eta ur zikinak garbitzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasen errolda fiskalak, 2018. urteko laugarren hiruhilekoari dagozkionak, interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak egiterik izan dezaten.

Errolda horietan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du ediktu honek, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo diren errolda horietan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzendua, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik. Aldian-aldian ordaindu beharreko zorrak izaki, denei batera jakinaraztekoak, ordaintzeko borondatezko aldian ere aurkeztu ahal izango da errekurtsua, edo hilabeteko epean, hura amaitzen den egunaren biharamunetik.

Tasa hori ordaintzeko epea 2019ko otsailaren 1.etik martxoaren 15era artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 17an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO